


1

Testua planifikatu



Idazte-prozesuaren lehenengo fasea: planifikatu

Idaztea ez da soilik produktu bat (testua) osatzea.


Idaztea prozesu bat da, eta zenbait fase ditu:

lehenengoa, testua planifikatzea.

Postaren planifikazio fasean, hiru gai landu genituen:




A. Testuinguru komunikatiboa



B. Testua osatzeko ideiak



C. Testuaren egituraketa




A. Testuinguru komunikatiboa



Testu bat idatzi nahi badugu, testuaren inguru komunikatiboa kontuan hartu behar dugu ezinbestean.

Posta idatzi aurretik, bost galdera egin genizkion geure buruari.





1. Zertaz idatziko dugu?

Lehenengo zeregina gaia aukeratzea zen; idazkiaren tituluan jasoko zena, alegia.

Gaia:

Kendu errepikapenak testuetatik



2. Zergatik aukeratu dugu gai hori?

Gai bat aukeratzeko arrazoiak anitzak izan daitezke: gaia gure lan eginkizunei lotuta edo modan egotea, berritzailea edo norberaren gustukoa izatea edo beharrezkotzat jotzea, esaterako.

3. Zein da testuaren helburua?

Gaia aukeratzeko arrazoiak zerikusia izaten du testua idazteko helburuarekin.

Arrazoiak zein helburuak, biek izaten dute isla testuaren sarreran.



Zergatik aukeratu genuen gaia?

Testuak hobetzeko baliabideak eskaintzea da gure lanari lotzen zaion eginkizun nagusietako bat. Gehiegizko errepikapenak saihestea baliabide eraginkorra izan daiteke. Izan ere, errepikapenek:

- irakurketa astuntzen dute,
- ulergarritasuna gutxitzen dute,
- estilo pobrezia erakusten dute.

Zein helburu ezarri genituen testurako?

- identifikatu testuetatik ezabatu daitezkeen errepikapenak
- eskaini errepikapenak kentzeko irtenbideak
- eman adibideak




4. Nork irakurriko du testua?

Hartzaileen profilak idazkeraren tonua, lexikoa eta estiloa definitzera behartzen gaitu, neurri handi batean.

5. Non irakurriko da?

Edukia transmititzeko erabiliko dugun moduak ezaugarri zehatz batzuk ezarriko dizkio testuari; luzera eta estiloa, esaterako.



nork


Postaren hartzaileak
**administrazioko langileak
edo herritarrak**
izango zirela kontuan izanik,
erabaki genuen tonu hurbila eta
estilo dibulгатiboaz gain,
teknikoegia ez den lexikoa
erabiltzea.

non

Gure asmoa
blog baterako posta
idaztea zenez, pantailan ezingo
ginen luzatu. Beraz, testuak
egitura argigarria eta oso eduki
zehatza behar zituen.




B. Testua
osatzeko
ideiak



Zein dira transmititu nahi ditudan ideia gakoak?

Testuinguru komunikatiboa aztertu ondoren, edukian nabarmendu nahi genituen ideia gakoak jasotzeari ekin genion, zentsurarik gabe, ez baitago ideia txarrik. Izan ere, gero erabili ez arren, ideia batek sarritan laguntzen digu bestelako ideia erabilgarriak sortzen.



Fase honetan, garrantzitsua da ideiak jasotzean zuzentasunaz ez arduratzea; gure burmuineko alde zuzentzaileak mugatu ez dezan gure alde sortzailea.


Ideiak jasotzeko zenbait teknika dago. Gure posta idazteko, hainbat iturri kontsultatu, eta zerrenda batean ideia interesgarrienak jaso genituen. Geroago erabakiko genuen zein erabili eta zein ez, baita ideia bakoitza zelan osatu ere.

Zein dira transmititu nahi ditugun ideia gakoak?

Ohikoak dira (-):

- Esanahi bereko hitz bi elkarren ondoan jartzeko ohitura daukagu, mezua argitzen dugulakoan. Batekin nahikoa da.
- Makulu-esamoldeak edo alferrikako loturak testuak idaztean, esaldien eta paragrafoen artekoak. Aztertu idazkera-ohiturak (gureak eta maila jaso adierazten dutelakoan erabilitakoak) eta baztertu gehiegikeriak.

- Aditza errepikatzea. Askotan kendu daiteke.




- Testuinguru grafikoetan, batzuetan ez dira esaldiak behar: nahikoa dira pare bat hitz.

- Zerrendetan informazioa errepikatzea. Sarrera esaldi egokia jarriz gero, errepikapenak kendu ahal dira.

- Beharrezkoak ez diren elementuak zehaztasun faltagatik. Hitz esanguratsuak erabili, izan zehatza.

- Paragrafo berean elementuak errepikatzea esaldi ezberdinetan. Ordenatu ideiak eta berridatzi paragrafoa.



- Errepikatu hitza esaldi ezberdinetan. Pobrezia. Edo kendu hitza; edo izenordaina erabili; edo berridatzi esaldiak; kontuz sinonimoekin.

- Mezua argitzen dugulakoan egiten dugu, baina testua astuntzen dugu.

- Testu bat idatzitakoan, aztertu: badago azaleko informaziorik? Xehetasun horiek ezinbestekoak dira?

Planteatu berregin eta sinplifikatzeko aukerak.



Nola egituratuko dugu testua?


Testua egituratzeko, zenbait eskema erabil ditzakegu.

Gure postarako, egituraketa espaziala aukeratu genuen.

7 Eskema espaziala

Ideien edo ideia-blokeen arteko loturak era grafikoan islatzeko balio du.

Oso eskema egokia da informazio asko eskaintzen duten edukietarako, modu laburrago batez eskaintzeko aukera ematen baitu. Egitura honen eraginkortasun komunikatiborako, funtsezkoa da ideien arteko loturak hoberen deskribatzen dituen formula topatzea.



Lehenengo ideia-blokea definitzen duen kontzeptua

- Ideia 1
- Ideia 2

Bigarren ideia-blokea definitzen duen kontzeptua

- Ideia 3
- Ideia 4

Hirugarren ideia-blokea definitzen duen kontzeptua

- Ideia 5
- Ideia 6
- Ideia 7





Testua antolatzeko, jada informazio ugari geneukan:

- Bagenekien tituluak gaia jaso behar zuela.

1. Titulua:

Zertaz idatzi?

Testuetatik errepikapenak kendu

- Sarrera gisa, gaia aukeratzeko arrazoiak aipa genitzakeen, baita postaren helburua ere.



2. Sarrera:

1. ideia: Zergatik gai hori?

Idaztean, askotan errepikapenak erabiltzen ditugu mezua argitzen dugulakoan, baina gehiegizko errepikapenak irakurketa astundu, ulergarritasuna gutxitu eta estilo pobrezia erakusten du.

2. ideia: Zein helburu du testuak?

Identifikatu testuetatik ezabatu daitezkeen errepikapenak. Adibideak eman, kendu daitezkeen errepikapen horiek argiago identifikatzeko. Irtenbideak eskaini.

- Testuaren gorputzean, eduki garrantzitsuena garatu behar genuen.



3. Testuaren gorputza:

3. ideia: Ohiko errepikapen mota bat

4. ideia: Adibidea

5. ideia: Irtenbidea

(Errepikapen mota bakoitzarekin hiru blokeak osatu)

Errepikapenak motaren arabera sailkatzea eskatzen zuen horrek.

Hiru mota zehaztu genituen:

- Hitza errepikatzea.
- Esaldi-zatia, egitura edo esaldia errepikatzea.
- Informazio inplizitua ematea.

- Bukaerarako, ideia-gako eta aholku orokor batzuk aipatzea otu zitzaigun.



4. Bukaera

- Normala da preposizioak, juntagailuak, izenordainak, artikulua edo hitz arruntak errepikatzea. Hitz arraro edo teknikoak errepikatzea deigarriagoa gertatzen da. Larregi errepikatzea da arazoa.
- Laburtzea beti da posible. Aholku orokorrak:
 - Esaldiak eta paragrafoak beste era batera antolatu.
 - Zehatza izan, eta hitz esanguratsuak erabili.
 - Idazkerari lotutakoak aztertu, eta desegokiak baztertu.



Testua planifikatu

Fase honetan hartutako erabakiak aurreragoko faseren batean aldatuko ditugu sarritan. Izan ere, idazteko prozesua ez da lineala, eta, gainera, faktore asko izan behar ditu kontuan. Horregatik, idaztean, atzera eta aurrera ibiltzen gara beti.

Planifikazio fasetik ateratako informazio guztia jaso ondoren, prest geunden testuaren zirriborroa idazten hasteko.



Testua planifikatu

Zertaz idatziko dugu?

Gaia: Kendu errepikapenak testuetatik

Zergatik aukeratu dugu gai hori?

Idaztean, elementuak errepikatzen ditugu mezua argitzen dutelakoan. Baina gehiegizko errepikapenek irakurketa astundu, ulergarritasuna gutxitu eta estilo pobrezia erakusten dute.

Zein da testuaren helburua?

Identifikatu ezabatu daitezkeen errepikapenak. Irtenbideak eman. Adibideak eskaini.

Nork irakurriko du?

Hartzaileak administrazioko langileak edo, oro har, herritarrak izango dira.

Tonu hurbila, estilo dibulгатiboa, lexiko ez teknikoegia.

Non irakurriko da?

Administrazio hizkera argia blogean agertuko da.

↓ Pantailan ezin larregi luzatu.


↓ Egitura argigarria eta eduki zehatza

Zein dira transmititu nahi ditugun ideia gakoak?

Ohikoak dira (-):

- Esanahi bereko hitz bi elkarren ondoan jartzeko ohitura daukagu, mezua argitzen dugulakoan. Batekin nahikoa da.
- Makulu-esamoldeak edo alferrikako loturak testuak idaztean, esaldien eta paragrafoen artekoak. Aztertu idazkera-ohiturak (gureak eta maila jasoan adierazten dutelakoan erabilitakoak) eta baztertu gehiegikeriak.

- Aditza errepikatzea. Askotan kendu daiteke.



- Testuinguru grafikoetan, batzuetan ez dira esaldiak behar: nahikoa dira pare bat hitz.

- Zerrendetan informazioa errepikatzea. Sarrera esaldi egokia jarri gero, errepikapenak kendu ahal dira.

- Beharrezkoak ez diren elementuak zehaztasun faltagatik. Hitz esanguratsuak erabili, izan zehatza.

- Paragrafo berean elementuak errepikatzea esaldi ezberdinetan. Ordenatu ideiak eta berridatzi paragrafoa.

- Errepikatu hitza esaldi ezberdinetan. Pobrezia. Edo kendu hitza; edo izenordaina erabili; edo berridatzi esaldiak; kontuz sinonimoekin.

- Mezua argitzen dugulakoan egiten dugu, baina testua astuntzen dugu.

- Testu bat idatzitakoan, aztertu: badago azaleko informaziorik? Xehetasun horiek ezinbestekoak dira? Planteatu berregin eta sinplifikatzeko aukerak.

Nola egituratuko dut testua?

Titulua

→ Sarrera (gaia aukeratzeko arrazoiak eta testuaren helburua):

↓ Testuaren gorputza (errepikapen motak, adibideak eta irtenbideak)

↓ Postaren bukaera (ideia gakoak eskaini)

7 Eskema espaziala

Idazten edo idazteko testuak idazteko idazteko gaitasuna izatea da. Hori lortzeko behar diren gaitasunak honakak dira: idazteko gaitasuna, idazteko gaitasuna, idazteko gaitasuna, idazteko gaitasuna, idazteko gaitasuna, idazteko gaitasuna, idazteko gaitasuna.

